

BUSTURIA / Abuztuan liburutegian ordezkapena egiteko deialdia, laster itxita

Uztailaren 21ean amaituko da udal liburutegian lan egin nahi dutenek kurrikuluma aurkezteko epea.

I. MADARIAGA

Busturiko Udala abuztuko hilabetearen herriko udal liburutegian ordezkapen lanak egiteko pertsona baten bila dabil. Orain dela aste batzuk kurrikulum pertsonalak entregatzeko epea ireki zuten interesa dutenentzat, eta hilaren 21a izango da izena emateko azken eguna, martitzena, alegia.

Udaletik adierazi duten bezala, Busturiko liburutegian behar egiteko bilatzen duten langilearen profila animatzaile soziokulturalarena da eta lanaldia abuztuko hilabetearen zehar izango litzateke. Horrez gain, liburutegiari dagozkion zereginak ere egin beharko lituzke aukeratuko duten beharginak.